DIRULAGUNTZA-PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2025

EMAKUNDE

- Emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorreko hiru ikerlanetarako beken 2025eko deialdia 2
- Emakumeen aurkako indarkeria-portaerei buruzko sentsibilizazio- eta prebentzio-jarduerak bultzatzen eta sustatzen dituzten erakunde, elkarte eta fundazioei dirulaguntzak 4
- Euskal Autonomia Erkidegoko udalerri, kuadrilla eta mankomunitateei 2025eko ekitaldian dirulaguntzak emateko oinarriak onartu eta deialdia egiten duena honako hauen diagnostikoak, prestaketa-lanak eta ebaluazioak egiteko behar den laguntza tekniko espezializatua emateko: «emakumeen eta gizonen berdintasunerako planak», «berdintasunerako plan sektorialak edo estrategikoak», «emakumeen aurkako indarkeria matxistaren arloko tokiko protokoloak» eta «berdintasunerako ordenantzak» 6
- Enpresa, entitate pribatu, kooperatiba eta irabazi asmorik gabeko entitateentzako diru laguntzen deialdia, aholkularitza-enpresa homologatu bat kontrata dezaten, emakume eta gizonen berdintasunari buruzko diagnostikoa eta berdintasun-plana egiteko, eta baita berdintasunerako planetan jasotako neurriak ezartzeko ere 8
- Elkartegintza sustatzea eta emakumeek EAEko esparru guztietan parte har dezaten bultzatzea 11

1.- Dirulaguntzen programaren izenburua

Emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorreko hiru ikerlanetarako beken 2025eko deialdia

2.- Arau erregulatzailea

EBAZPENA, 2025eko otsailaren 18koa, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariarena ikerlanak egiteko hiru bekaren oinarriak onartu eta beka horiek emateko deialdia egiten duena emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan, 2025erako.

3.- Arau erregulatzailea, deialdia eta emateko ebazpena argitaratzea (EHAAko hiperesteka)

Deialdia:

2025eko otsailaren 18ko Ebazpena (2025eko otsailaren 25eko EHAA)

https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2025/02/2500881e.shtml

Emakida:

2025eko azaroaren 26ko Ebazpena (2025eko abenduaren 16ko EHAA, 242. zk.)

https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2025/12/2505385e.shtml

2025eko abenduaren 23ko Ebazpena (2026ko urtarrilaren 20ko EHAA, 12. zk.)

https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/bopv2/datos/2026/01/2600245a.shtml

4.- Dirulaguntza Programaren deskribapen laburra eta helburuak

2025eko ekitaldian, ondo definitutako hiru beka-mota mantendu dira, eta horietako bakoitza hiru ikerketa-lan motari dagokio. Beka mota bakoitzaren xedea honako hau izan da: 1. eta 3. beken xedea etorkizuneko bekadunen prestakuntza orientatzea eta bultzatzea da, genero-harremanen testuinguruan sortzen ari diren ikerketa-eremu eta -gaietan, eta gure gizartean balioak aldatzen laguntzea. 2. bekaren bidez, diskriminazio anizkoitzeko arriskuan edo egoeran dauden emakumeen kolektiboen beharrak aztertzen eta erantzuna ematen aurrera egin nahi da.

Beraz, deialdi honen bidez, azterketa- eta ikerketa-eremu horiek dinamizatu nahi dira, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzen laguntzeko. Arlo horretan adituak diren pertsonei edo pertsona-taldeei zuzenduta dago, ikerketa-lanen kalitatea bermatzeko eta adierazitako helburuak lortzeko.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren betearazpena, erabilgarritasuna eta gizarte-eragina. (Era berean, dirulaguntzen programan jasotako neurrien zerrenda jasoko da, hala badagokio, berdintasuna sustatzeko eta emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo minorizatuekiko desberdintasunak ezabatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere).

2025eko ekitaldian, 37 eskaera jaso ziren guztira. Beken % 100 esleitu ziren norgehiagoka-prozeduraren bidez eta deialdian ezarritako baremazio- eta prozedura-irizpideen arabera.

– 1. motako bekan hemeretzi (19) eskaera egon ziren. Horietatik bat (1) onuradun izan zen, hamabi (12) ordezko eta sei (6) eskaera ukatu ziren hainbat arrazoirengatik (eskatutako gutxieneko

puntuazioa ez lortzeagatik, eskaera bikoizteagatik eta eskatutako dokumentazioa ez zuzentzeagatik). Beka onuradunaren edukia honi buruzkoa da: «Emakumeak bizikletaz euskal hiriburuetako kaleetan. Genero-ikuspegidun diagnostiko parte-hartzailea ".

- 2. motako bekan, hamar (10) eskaera jaso ziren: onuradun bat (1), zortzi (8) ordezko eta bat (1) ukatu zen (eskatutako gutxieneko puntuazioa ez lortzeagatik). Beka onuradunaren edukia "Euskal Autonomia Erkidegoan bakarrik bizi diren adineko emakumeak, emandako baimen soziala?" da.
- 3. motako bekan, zortzi (8) eskabide jaso ziren; onuradun bat (1) izan zen, eta zazpi (7) ordezko. Beka onuradunaren edukia honi buruzkoa da: "Beste barre batzuk egin daitezke. Euskadin feminismoaren seriotasun jasanezinaren mitoa desaktibatzea».

Beka bakoitzak hamar hilabeteko iraupena izango du, deialdiaren ebazpena jakinarazten den unetik zenbatzen hasita, eta ikerlanak aurkezteko epea 2025eko ekainean amaituko da. Beka bakoitzaren indarraldian bilerak egin dira beka-mota bakoitzaren onuradunekin, aldi horietan egindako lanen kontrola, jarraipena eta ebaluazioa egiteko. Epea amaitu ondoren, azken ikerketa-lana aztertu eta baloratuko da, eta lortutako emaitzak eta erabilgarritasun eta inpaktu soziala lortuko dira.

Aurreko deialdietan bezala, aurreikus daiteke eragin positiboa izango duela deialdiak, bai bekadunen prestakuntzari dagokionez, bai ondoriozko ikerlanen zabalkundeari dagokionez. Ikerketa-lanak amaitu ondoren, hedabideei aurkezten zaizkie, eta Emakunderen webgunean argitaratzen dira, bai eta Emakunderen Dokumentazio Zentroan gordailutu ere. Beketatik eratorritako ikerketek, gaiaren espezifikotasuna dela eta, genero-ikuspegitik eta EAEko testuinguru propioan jorratzeari dagokionez, interes sozial handia sortu ohi dute, eta interes hori lehen aurkezpen publikotik harago doa, bai eta denboran zehar elkarrizketetarako, jardunaldietarako, kongresuetarako eta abarretarako egileei egindako lanak eta lankidetza-eskaerak kontsultatuz ere.

6.- Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren adierazleen emaitza

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Aurkeztutako eskaeren kopurua	40	37
Prestakuntzan interesa duten emakumeen kopurua	70	73
Prestakuntzan interesa duten gizonen kopurua	15	14
Zenbat ikerketa-beka eman diren	3	3
Prestakuntza jaso duten emakumeen kopurua	5	4
Prestakuntza jaso duten gizonen kopurua	2	2
Prestakuntzaren edukiak zabaltzeko ekintzen kopurua	3	*

* Ikerketa-lanak oraindik ez dira zabaldu, baina 2026rako aurreikusita dago zabaltzea.

1. Dirulaguntza-programaren izenburua

Emakumeen aurkako indarkeria-portaerei buruzko sentsibilizazio- eta prebentzio-jarduerak bultzatzen eta sustatzen dituzten erakunde, elkarte eta fundazioei dirulaguntzak

2. Arau erregulatzailea

EBAZPENA, 2025eko otsailaren 18koa, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen zuzendariarena, emakumeen aurkako indarkeria-portaerei buruzko sentsibilizazio- eta prebentzio-jarduerak bultzatzen eta sustatzen dituzten erakunde, elkarte eta fundazioei 2025ean dirulaguntzak emateko deialdia egin eta dirulaguntza horiek arautzen dituena.

3. Arau erregulatzailea, deialdia eta esleipen-ebazpena argitaratzea (EHAArako hiperesteka)

https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2025/02/2500912e.pdf

4. Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Emakumeen aurkako indarkeriaren arloan, emakumeen aurkako indarkeriazko portaerez sentsibilizatzeko eta halakoak prebenitzeko abian jarritako programak erakunde publikoek ez ezik, irabazi asmorik gabeko erakunde eta elkarteek ere gauzatzen dituzte. Hortaz, egoki da indarkeria horri buruz sentsibilizatzeko eta hura prebenitzeko proiektuak, programak, ekintzak edo estrategiak abiarazten dituzten erakundeei laguntzea.

2025eko deialdirako aurreikusitako helburuei dagokienez, hauek aipa daitezke:

a. Emakumeen aurkako indarkeria errotik kentzea.
b. Emakumeen eta gizonen artean dauden desberdintasunen egitura-kausak ezabatzea.
c. Emakumeen aurkako indarkeria eta haren magnitudea ikusaraztea.
d. Gizarteak emakumeen aurkako indarkeriarekiko duen tolerantzia gutxitzea.
e. Emakumeen aurkako indarkeriazko jokabideen oinarri diren balioak, sinesmenak eta jarrerak aldatzea.
f. Lanaren eremuan eta etxean emakumeei eta gizonei izendatzen zaizkien rolak aldatzea, rol horiek baitira gaurko gizartean nagusi den desberdintasun-egoeraren "haztegi".
g. Berdintasunaren aldeko jarrera proaktiboak sustatzea, bai helduen artean, bai haurren eta nerabeen artean.
h. Berdintasunaren aldeko hezkuntza hobetzea ikastetxeetan, emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko sistemarik onena denez gero.
i. Herritarrei informazioa ematea emakumeen aurkako indarkeriaren errealitateari eta mikromatxismoei buruz, desberdintasuna eta emakumeen aurkako indarkeria hasiera-hasieratik identifikatu ahal izateko.
j. Herritarrak sentsibilizatzea, emakumeen aurkako indarkeria-jokabideen larritasunari buruz eta gizartearen gaitz hori ikusarazteko premiari buruz.

k. Bizitza pertsonalean, gizartean, familian eta lanean —alor guztietan—berdintasuna —benetakoa eta eraginkorra— lor dadin sustatzea.
l. Emakumeen aurkako indarkeria errotik kentzen eta emakumeen eta gizonen artean berdintasuna lortzen gizarte-eragile guztiek parte har dezaten erdiestea.
m. Emakumeen autonomia sustatzea haien bizitzaren eremu guztietan.
n. Emakumeen posizio soziala eta ekonomikoa indartzea.
o. Indarkeriaren biktima diren emakumeak gizarteratu eta laneratu daitezen lortzea.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Dirulaguntza hauetara, hirurehun mila euro bideratu dira (300000 €). Deialdi honetan, eutsi egin zaio proiektu bakoitzeko diruz lagundu beharreko gehienezko zenbatekoari, eta 12000 euro izango dira; gehienez ere bi proiektutarako dirulaguntza emango zaio erakunde bakoitzari —betiere, proiektu horiek xede desberdina badute—, erakunde eta proiektu gehiagori aukera emateko. 2024an, 77 proiektu aurkeztu ziren, eta 51k jaso zuten dirulaguntza. 2025ean, 82 proiektu aurkeztu dira, eta 51ek jaso zuten dirulaguntza. Elkarteek emakumeen aurkako indarkeriarekin lotutako sentsibilizazioaren eta prebentzioaren alde lan egiteko interesa dutela nabaritu da.

6. Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren adierazleen emaitza

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Emandako dirulaguntzen kopurua	40	51

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Euskal Autonomia Erkidegoko udalerri, kuadrilla eta mankomunitateei 2025eko ekitaldian dirulaguntzak emateko oinarriak onartu eta deialdia egiten duena honako hauen diagnostikoak, prestaketa-lanak eta ebaluazioak egiteko behar den laguntza tekniko espezializatua emateko: «emakumeen eta gizonen berdintasunerako planak», «berdintasunerako plan sektorialak edo estrategikoak», «emakumeen aurkako indarkeria matxistaren arloko tokiko protokoloak» eta «berdintasunerako ordenantzak»

2.- Araua

EBAZPENA, 2025eko otsailaren 18koa, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko udalerri, kuadrilla eta mankomunitateei 2025eko ekitaldian dirulaguntzak emateko oinarriak onartu eta deialdia egiten duena honako hauen diagnostikoak, prestaketa-lanak eta ebaluazioak egiteko behar den laguntza tekniko espezializatua emateko: «emakumeen eta gizonen berdintasunerako planak», «berdintasunerako plan sektorialak edo estrategikoak», «emakumeen aurkako indarkeria matxistaren arloko tokiko protokoloak» eta «berdintasunerako ordenantzak».

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

Dirulaguntzaren deialdia egin eta arautzen duena:
https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/0038511/web01-tramite/eu/
Dirulaguntza ematen duena:
https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?ed2025004548

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Deialdi honen helburua da Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriei, kuadrillei, eta mankomunitateei behar den laguntza tekniko espezializatua ematea, 2025. urtean zehar honako hauek prestatze aldera: «emakumeen eta gizonen berdintasunerako planak», «berdintasunerako plan sektorialak eta/edo estrategikoak», «emakumeen aurkako indarkeria matxistaren arloko tokiko protokoloak» eta «berdintasunerako ordenantzak».

Deialdi honetan lehentasuna ematen zaie 7.000 biztanletik beherako udalerriei, kuadrilla eta mankomunitateei; baita, horiek berdintasunerako diagnostikoa eta/edo plana lehen edo bigarren aldiz egiten dutenei, udalerri guztiek emakumeen eta gizonen berdintasunerako politikak gara ditzaten. Era berean, lehentasuna eman zaio mankomunitateka, kuadrillaka edo udalerri-multzo batek programa bateratu bat aurkezten badu (udalerri-multzoen kasuan, multzo horretako udalerri bakoitzak 7.000 biztanletik behera izango ditu), politika publikoek ahalmen handiagoa eta oihartzun handiagoa baitute haien ingurunean. Baita, 7.000 biztanletik beherako udalerriak lehenetsi dira ere. Halaber, lehentasuna ematen zaio berdintasun-teknikariaren zuzeneko kontratazioari edo kontratua luzatzeari.

Deialdiaren zenbatekoa bostehun mila (500.000) eurokoa da.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

79 eskaera aurkeztu ziren, eta horietatik 22k ez dute laguntzarik jasoko, honako arrazoi hauengatik:

- 18 eskaera ordezkoen zerrendan geratu ziren aurrekontua agortu zelako eta ezin zelako guztiei erantzun;
- 2 eskaerak ez zituzten deialdiaren oinarrietan ezarritako baldintzak betetzen;
- 2 entitatek atzera egitea erabaki zuten prozedura amaitu aurretik.

Dirulaguntza hauek ematen dituen 2025eko urriaren 6ko Ebazpenaren arabera, 57 dirulaguntza emango ziren, guztira 500.000,00 euro, 46 udalerriri eta 7 mankomunitate, koadrila eta udal-elkarteri. Zuriketa ostean guztira 488.279,35 euro esleitu ziren 2026 urtean.

Eman ziren laguntzen ondorioz:

22 laguntza diagnostikoak, berdintasun-planak eta ebaluazioak egiteko izan dira, eta horien arabera:

- 11 lehen eta bigarren diagnostiko eta berdintasun-planei dagozkie. Horietatik 8 udal txikiek (7.000 biztanle baino gutxiagokoek) edo mankomunitate/kuadrillek aurkeztuak.
- 11 III, IV, V edo VI diagnostikoak, berdintasun-planak eta/edo ebaluazioak egiteari dagozkie. Horien artean 6 udal txikiak izan ziren onuradun.

35 dirulaguntza diagnostiko eta programa sektorialak egiteko izan ziren. Horiei esker, emakumeek eta gizonek udalaren jarduera-eremu guztietan duten egoera ezagutu ahal izango da, eta behar zehatzetara hobeto egokitutako programak garatu ahalko dira. Diruz lagundutako 35 proiektu horietatik:

- 6 genero-indarkeriaren arloko protokoloak edo planak egiteko edo ebaluatzeko izan dira; proiektu horietatik 3 7.000 biztanle baino gutxiagoko udalek edo mankomunitateek/kuadrillek garatu dituzte.
- 1 jaietan edo aisialdian indarkeria protokoloen lanketarako izan da eta kasu honetan ere udal txiki batek garatu du.
- 23 barne planak eta sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren kontrako protokoloak egiteko izan dira. horien artean, 11 udal txikiek aurkeztutakoak izan ziren.
- 5 beste diagnostiko batzuk egiteko izan dira, eta horietatik 4 udalerri txikiek garatu zituzten.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Udalerri, kuadrilla, mankomunitate eta bi udalerri baino gehiagoren multzoen zenbat proiekturi eman zaien dirulaguntza.	36	57
Biztanle gutxiko (5.000 biztanle baino gutxiago) zenbat udalerriri eman zaien dirulaguntza.	30	75 (*)

(*) 29 udalerri (5.000 biztanle baino gutxiagokoak indibidualki) + 7 mankomunitate, kuadrilla eta/edo udalerri-multzo (46 udalerri 5.000 biztanle baino gutxiagokoak).

1. Dirulaguntza-programaren izenburua

Enpresa, entitate pribatu, kooperatiba eta irabazi asmorik gabeko entitateentzako diru laguntzen deialdia, aholkularitza-enpresa homologatu bat kontrata dezaten, emakume eta gizonen berdintasunari buruzko diagnostikoa eta berdintasun-plana egiteko, eta baita berdintasunerako planetan jasotako neurriak ezartzeko ere

2. Arau erregulatzailea

EBAZPENA, 2025eko otsailaren 18koa, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen zuzendariarena, zeinaren bidez 2025. urtean enpresei, entitate pribatuei, kooperatibei eta irabazi asmorik gabeko entitateei dirulaguntzak emateko deialdia egiten baitzaie aholkularitza-enpresa homologatu bat kontrata dezaten emakume eta gizonen arteko berdintasunari buruzko diagnostikoak eta berdintasun-planak egiteko, bai eta berdintasunerako planetan jasotako neurriak ezartzeko ere, minimis laguntzen araubidea baliatuta, eta zeinaren bidez dirulaguntza horien oinarriak arautzen baitira.

EBAZPENA, 2025eko apirilaren 10ekoa, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen zuzendariarena, zeinaren bidez aldatzen baita 2025eko otsailaren 18ko Ebazpenean aurreikusitako hautaketa- eta jarraipen-batzordearen osaera. Ebazpen horren bidez, enpresa, entitate pribatu, kooperatiba eta irabazi-asmorik gabeko entitateentzako 2025erako dirulaguntzen oinarriak arautzen dira eta deialdia egiten da, aholkularitza-enpresa homologatu bat kontratatzeko, bai emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko diagnostikoa eta berdintasun-plana egiteko, bai berdintasun-planetan jasotako neurriak ezartzeko, hori guztia minimis laguntzen araubidearen babesean.

3. Arau erregulatzailea, deialdia eta esleipen-ebazpena argitaratzea (EHAArako hiperesteka)

Deialdiaren ebazpena: 2025ko otsailaren 18a, eta EHAAn argitaratutako eguna: 2025eko otsailaren 26a.

EBAZPENA, 2025eko otsailaren 18koa, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen zuzendariarena, zeinaren bidez 2025. urtean enpresei, entitate pribatuei, kooperatibei eta irabazi asmorik gabeko entitateei dirulaguntzak emateko deialdia egiten baitzaie aholkularitza-enpresa homologatu bat kontrata dezaten emakume eta gizonen arteko berdintasunari buruzko diagnostikoak eta berdintasun-planak egiteko, bai eta berdintasunerako planetan jasotako neurriak ezartzeko ere, minimis laguntzen araubidea baliatuta, eta zeinaren bidez dirulaguntza horien oinarriak arautzen baitira.

Ebazpenaren bidez aldatzea: 2025eko apirilaren 10a, eta EHAAn argitaratutako eguna: 2025eko maiatzaren 13a.

EBAZPENA, 2025eko apirilaren 10ekoa, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen zuzendariarena, zeinaren bidez aldatzen baita 2025eko otsailaren 18ko Ebazpenean aurreikusitako hautaketa- eta jarraipen-batzordearen osaera. Ebazpen horren bidez, enpresa, entitate pribatu, kooperatiba eta irabazi-asmorik gabeko entitateentzako 2025erako dirulaguntzen oinarriak arautzen dira eta deialdia egiten da, aholkularitza-enpresa homologatu bat kontratatzeko, bai emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko diagnostikoa eta berdintasun-plana egiteko, bai berdintasun-planetan jasotako neurriak ezartzeko, hori guztia minimis laguntzen araubidearen babesean.

Dirulaguntza emateko eta ukatzeko ebazpena: 2025eko urriaren 1a, eta EHAAn argitaratutako eguna: 2025eko azaroaren 6a. .

EBAZPENA, 2025eko urriaren 1ekoa, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen zuzendariarena, 2025. urtean enpresei, entitate pribatuei, kooperatibei eta irabazi asmorik gabeko entitateei dirulaguntzak emateko eta ukatzeko dena. Dirulaguntza horiek aholkularitza-enpresa homologatuak kontratatzeko dira, emakume eta gizonen berdintasunari buruzko diagnostikoak eta berdintasun-planak egin ditzaten, bai eta berdintasunerako planetan jasotako neurriak ezar ditzaten ere, betiere minimis laguntzen araubidea baliatuta.

Hutsen zuzentzeko ebazpena: 2025eko abenduaren 5ª, eta EHAAn argitaratutako eguna: 2025eko abenduaren 5a.

HUTSEN ZUZENKETA, ebazpen honena: Ebazpena, 2025eko urriaren 1ekoa, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen zuzendariarena, 2025. urtean enpresei, entitate pribatuei, kooperatibei eta irabazi asmorik gabeko entitateei dirulaguntzak emateko eta ukatzeko dena. Dirulaguntza horiek aholkularitza-enpresa homologatuak kontratatzeko dira, emakume eta gizonen berdintasunari buruzko diagnostikoak eta berdintasun-planak egin ditzaten, bai eta berdintasunerako planetan jasotako neurriak ezar ditzaten ere, betiere minimis laguntzen araubidea baliatuta.

4. Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programa honen bidez, enpresei eta entitate pribatuei, kooperatibei eta irabazi asmorik gabeko entitateei diru laguntzak ematen zaizkie, aholkularitza-enpresa homologatu bat kontrata dezaten, eta, horrela, laguntza teknikoa izan dezaten, enpresa edo entitate pribatu horietan lan egiten duten emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko diagnostikoa eta berdintasun-plana egiteko.

Programa honetako diru-hornidura laurehun mila eurokoa da (400.000,00 €).

Programak enpresak inplikatu nahi ditu, berdintasun-politikak ezar ditzaten enpresa barruan eta inguruarekin izaten dituzten harremanetan. Zehazki, legez behartuta ez dauden enpresei eta gehienez 150 langile izan eta behartuta dauden enpresei lagundu nahi zaie: laguntza teknikoa ematen zaie berdintasun-diagnostiko eta -plan bat egiteko, eta, gutxienez, hogei ordu eskaintzen zaizkie enpresetan berdintasunari buruzko sentsibilizazioa/prestakuntza emateko, eta haien berdintasun-planetako neurriak ezartzen laguntzea.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

69 erakunde aurkeztu ziren, eta horietako batek atzera egin zuen, bere proiektua beste laguntza-lerro batekin bat zetorrela egiaztatuta, eta beste 3 ukatu egin ziren, dirulaguntzaren helburura ez egokitzeagatik. Oinarri arautzaileetan aurreikusitako balorazio-irizpideak aplikatuta, 65 erakunderi eman zitzaien dirulaguntza, baina azkenean 64k osatu zuten prozesua, ezarpenerako epe operatiborik ez zegoelako uko egin baitzioten. Horren ondorioz, ez zen kreditu erabilgarria agortu, eta 90.637,51 euroko soberakina geratu zen. Hori kontuan hartu behar da 2026ko deialdiaren neurria zehazteko.

Diruz lagundutako erakundeek ezarpen zabala izan zuten lurraldean: 32 Bizkaian, 21 Gipuzkoan, 6 Araban eta 2 lurralde arteko eremuan. Jarduera ekonomikoari dagokionez, hainbat sektore nabarmentzen dira: 3 osasun-erakunde, 2 informatikakoak, 13 hezkuntzakoak/prestakuntzakoak, 6 esku-hartze sozialekoak, 7 ingeniaritza eta enpresa teknologikokoak, 2 enpresa-zerbitzuetakoak, 5 eraikuntza-sektorekoak, 1 zientifikoa, 3 kultura-kudeaketakoak, 9 industriakoak, 2 energetikoak eta beste zerbitzu batzuetako entitate kopuru esanguratsua.

Diruz lagundutako erakunde guztiek pertsona askori eskaintzen dizkiete zerbitzuak, eta etorkizunean berdintasun-planak abian jartzearen ondoriozko esku-hartzeen eragin sozialak gizartean eragin biderkatzaile handia izatea espero da, bai emandako zerbitzuen kalitateari dagokionez, bai horietan lan egiten duten pertsonen lan-baldintzei dagokienez, bai emakumeek eta gizonek baliabide sozial eta ekonomikoetarako sarbidean duten desberdintasuna murrizteari dagokionez.

Kasu guztietan, honako hauek hartu dira kontuan: berdintasunari buruzko diagnostikoa eta plana egiteko, zein neurrien ezarpena, aurkeztutako proposamenaren kalitatea, planak zenbati eragingo dien zuzenean, entitateko pertsonen partaidetza-maila, jarduera-eremua, neurria, lurralde-ezarpena eta entitateko langileen dibertsitate-maila.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Diruz lagundutako enpresen kopurua:	60 eta 80 artean	56 enpresa

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Elkartegintza sustatzea eta emakumeek EAEko esparru guztietan parte har dezaten bultzatzea

2.- Araua

EBAZPENA, 2025eko apirilaren 2koa, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariarena, zeinaren bidez dirulaguntzak emateko deialdi bat egin eta deialdi horren oinarriak arautzen baitira; aipatutako deialdia emakumeen eta gizonen berdintasuna helburu bakartzat duten irabazi-asmorik gabeko elkarte eta bestelako entitateei eta emakume-elkarteei 2025. urtean dirulaguntzak emateko da, asoziazionismoa indartzeko proiektuetarako eta emakumeen eta gizonen berdintasunerako proiektu estrategikoetarako.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

Deialdiaren ebazpena:

EBAZPENA, 2025eko apirilaren 2koa, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariarena, zeinaren bidez dirulaguntzak emateko deialdi bat egin eta deialdi horren oinarriak arautzen baitira; aipatutako deialdia emakumeen eta gizonen berdintasuna helburu bakartzat duten irabazi-asmorik gabeko elkarte eta bestelako entitateei eta emakume-elkarteei 2025. urtean dirulaguntzak emateko da, asoziazionismoa indartzeko proiektuetarako eta emakumeen eta gizonen berdintasunerako proiektu estrategikoetarako.

Deialdiaren ebazpena EHAAn argitaratzea, 2025eko apirilaren 8an, asteartea

https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/bopv2/datos/2025/04/2501557e.shtml

Emateko ebazpena:

EBAZPENA, 2025eko irailaren 18koa, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariarena, zeinaren bidez dirulaguntzak ematen baitzaizkie helburu bakarra emakumeen eta gizonen berdintasuna duten irabazi-asmorik gabeko elkarte eta erakundeei eta emakumeen elkarteei, 2025eko ekitaldian, elkartegintza indartzeko proiektuetarako eta emakumeen eta gizonen berdintasunerako proiektu estrategikoetarako.

Emateko ebazpena EHAAn argitaratzea, 2025eko urriaren 7an, ostirala.

euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2025/10/2504203e.shtml

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako 2030 hainbat helburu eta ildo jasotzen ditu. Dirulaguntzen deialdi honekin lotzen diren helburuak, ildoak eta ekintzak zerrendatu dira:

II. ARDATZA. HELBURU ESTRATEGIKOA: EMAKUMEEN AHALDUNTZEA

ESKU HARTZEKO LAN ILDOAK ETA HELBURU ESPEZIFIKOAK. EMAKUMEEN PROTAGONISMOA SUSTATZEA ETA EREMU GUZTIETAN EGINDAKO EKARPENAK AITORTZEA ETA BALORATZEA.

II-5. EMAKUMEEN PROTAGONISMOA SUSTATZEA ETA EREMU GUZTIETAN EGINDAKO EKARPENAK AITORTZEA ETA BALORATZEA

11. ILDOA. PARTAIDETZA SOZIALA ETA POLITIKOA

II-5.1. Emakumeen ekarpenak.

Emakumeen ekarpenen ikusgarritasuna eta balorizazioa areagotzea, paradigma feministatik abiatuta, giza garapen jasangarrian.

II-5.2. Emakumeen Elkarteak.

EAEko emakumeen elkarte-mugimenduaren lana indartzea eta sendotzea, emakumeen eskubideak eta herritartasuna defendatzeko, eraikitzeko eta finkatzeko, baita emakumeen eta gizonen benetako berdintasuna lortzeko ere.

II-5.3. Emakumeen ahalduntze-eskolak eta etxeak.

Ahalduntze Eskolen, Emakumeen Etxeen eta beste gune batzuen lana sustatzea, eta haietatik emakumeen ahalduntze indibiduala, kolektiboa eta soziala bultzatu, praktikatu eta garatzea

II-5.4. Erakunde sozioekonomikoak eta politikoak.

Erakunde sozial, sindikal, enpresarial, kultural eta politikoetan berdintasuna lortzeko konpromisoa hartu duten emakumeen kopurua handitzea

II-5.5. Parte-hartzea aisian eta kulturan.

Genero-arrakalak murriztea emakumeen eta gizonen parte-hartzean, EAEko ikaskuntza baliabide eta -programetan, baita bertan garatzen diren jarduera guztietan ere (aisia, arte, euskara, kultura eta jaiei lotutakoetan).

Horrela, diru-laguntza lerro honek aurretik deskribatutako helburuei erantzuten die eta eman egiten dira 430.000 euro, emakumeen eta gizonen berdintasuna helburu bakartzat duten irabazi asmorik gabeko elkarte eta bestelako entitateentzat eta emakumeen elkarteentzat, asoziazionismoa sendotzeko proiektuetarako.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

2025eko deialdian emandako diru-laguntzen datuak honako hauek dira:

- Jasotako eskaerak: 99 erakunde (110 proiektu)
- Emandako eskaerak: 97 eskaera (64 lehen lerroan eta 33 bigarren lerroan)
- Erakunde onuradunak ez izateagatik ukatutako eskaerak (Ebazpenaren 3.1 artikulua): 9
- Eskabideen atzera egitea: 2.
- Emakunderen beste diru-laguntza lerro baten eskumena delako, ezin da diruz lagundu: 1
- Elkarteak ez dio erantzuten 6. artikuluak justifikatutako errekerimenduari (dokumentazioa aurkeztea): 1.
- Diru-laguntza jasotzeari uko egitea: 15 elkarte.

Prozesua amaitu ez denez, % 75 ordaindu da, 322.500 euroko zenbatekoarekin, eta, justifikazio-memoria aurkezteko epea 2026ko martxoaren 2an amaitu zenez (egun hori barne), gainerako % 25a ordainduko da,

107.500 euro, emandako diru-laguntza osoaren justifikazio ekonomikoa eta aurkeztutakoa egin izanaren justifikazio teknikoa egiaztatu ondoren. Diru-laguntza jaso zuten erakundeek, gutxi gorabehera, 13.000 bazkide baino gehiago dituzte, eta horrek eragin handia du herritarrengan, bai elkarteetan bertan parte hartzen duten emakumeengan, bai herritarrengan oro har; izan ere, proiektu asko herritarrentzat irekita daude, eta beste askok, berriz, onura orokorreko baliabide publikoak sortzen dituzte, emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna lortzen laguntzeko.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Emakumeen elkarteei emandako diru-laguntzen kopurua	100-140	79
Irabazi asmorik gabeko erakundeei emandako diru laguntzen kopurua.	100-140	0
Emakume-elkarteei diruz lagundutako proiektu-kopurua.	100-250	85
Irabazi asmorik gabeko erakundeei diruz lagundutako proiektuen kopurua	100-250	0
Diru-laguntza jasotzen duten emakume-elkarteen ehunekoa, elkarteen gidan erregistratutako emakume-elkarteen guztizkoarekiko	35%	43,12%